



**EEP**F



## **TRINKETEKO EUSKAL HERRIKO LIGA ABIAN DA**

Iragan asteburuan modalitate guzietako lehenbiziko jardunaldia ospatu zen

Trinketeko Euskal Herriko Liga abian da, izan ere, iragan asteburuan, herrialde ezberdinak hainbat trinketetan, lehenbiziko jardunaldia ospatu zen.

Eskuzko nagusi mailako binakako partidetan, EPLE, Atxarte eta Oberena atera ziren garaile, eta banakan, berriz, Kurene eta Mundarri izan ziren txapelketari hasiera bikaina eman ziotenak.

Erremintari dagokionez, Kureneko bi taldeak larruzko paletako bi neurketen irabazleak izan ziren eta, bestalde, Errekaleor eta Ramuntuko bi taldeak nagusitu ziren mutilen paleta argentinarrean. Era berean, nesken paleta argentinarrean, Zidorrak eta Errekaleorrek erakutsi zuten bere kalitatea.

Bukatzeko, xaren ere ekin zioten txapelketari eta lehenengo garaipenak Ametxa K.E. 2 eta Larraun 2ren alde jausi ziren, Ametsa K.E. 1 eta Larraun 1, hurrenez hurren, menderatuta.



**EEP**F



## **LA LIGA VASCA DE TRINKETE YA ESTÁ EN MARCHA**

El pasado fin de semana se disputó la primera jornada en las diferentes modalidades

La Liga Vasca de trinkete ya se ha puesto en marcha y, de hecho, el pasado fin de semana se celebró la primera jornada en diferentes recintos de Euskal Herria.

Dentro de la categoría senior de mano, en lo que respecta a los encuentros por parejas, los vencedores fueron EPLE, Atxarte y Oberena, mientras que en lo concerniente a las luchas individuales, los que mejor empezaron fueron Kurene y Mundarro.

En lo que a la herramienta se refiere, los dos conjuntos de Kurene vencieron en sus respectivas citas de paleta cuero, Errekaleor y los dos equipos de Ramuntxo salieron victoriosos en paleta argentina masculina, y Zidorra y Errekaleor se impusieron en sus duelos en paleta argentina femenina.

Finalmente, en xare también empezó la competición y los primeros triunfos cayeron del lado de Ametsa K.E. 2 y de Larraun 2, que doblegaron a Ametsa K.E. 1 y a Larraun 1, respectivamente.